



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

**2018KO AZAROAREN 22KO OSOKO
BILKURAREN ERABAKIAK**

1. EH Bildu talde parlamentarioak egindako lege-proposamena, euskara jakiteko eskubidea bermatzeko. Aintzat hartzeari buruzko eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\09\02\02\00025]

Aintzat hartzea onetsi egin da.

**ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO
EL DÍA 22 DE NOVIEMBRE DE 2018**

1. Debate y resolución definitiva en relación con la toma en consideración de la proposición de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, para garantizar el derecho a saber euskera. [11\09\02\02\00025]

Aprobada la toma en consideración.





2. Mozioa, Eba Blanco de Angulo EH Bildu taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, Gipuzkoako eta Arabako Emergentziak-Osakidetzaren zentro koordinatzaileak Bizkaira eramateari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena.
[11\11\03\00\00103]

EA-NV, EH Bildu, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

38/2018

- "1. Eusko Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio Emergentzien egoerari buruzko azterketa zorrotz bat egin dezala eta 2019. urtean zehar aurkez dezala Osasun Batzordean, zerbitzu horren kalitatea hobetzeko behar diren neurriak hartzeko.
2. Ikerketa hori egiterakoan Emergentzietako zerbitzuko langileen ikuspuntua kontuan hartuko da, bai eta zerbitzu horretan inplikaturik dauden hainbat eragilerena ere.
3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, prozesu hori gauzatzeko den bitartean, ez ditzala lekualdatu Bizkaira Gipuzkoako eta Arabako Osakidetza-Emergentzietako zentro koordinatzaileak".

2. Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D.ª Eba Blanco de Angulo, parlamentaria del grupo EH Bildu, sobre el traslado a Bizkaia de los centros coordinadores de Emergencias-Osakidetza de Álava y Gipuzkoa.
[11\11\03\00\00103]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EH Bildu, SV-ES y PV-ETP.

38/2018

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a realizar y presentar ante la Comisión de Salud, a lo largo del año 2019, un estudio riguroso sobre la situación de Emergencias en Euskadi con el fin de adoptar las medidas que sean necesarias para mejorar la calidad de este servicio.
2. Para la realización de dicho estudio se tomará en consideración el punto de vista de los profesionales del servicio de Emergencias, así como el de los diversos agentes implicados en dicho servicio.
3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a no trasladar a Bizkaia los centros coordinadores de Emergencias-Osakidetza de Álava y Gipuzkoa mientras dure este proceso".





3. Mozioa, Eukene Arana Varas Elkarrekin Podemos taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, indarkeria matxistei eta adineko emakumeei buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\03\00\00104]

EA-NV, EH Bildu, EP, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

39/2018

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Eman dezala ezagutzera eta aitortu dezala adineko emakumeek euskal gizarteari eta eskubideen konkistari historikoki egin dieten eta gaur egun egiten dieten ekarpena, jardunaldien, tailerren eta gutxienez bi kanpainaren bidez. Kanpainak 2019an eta 2020an abiaraziko dira.
2. Ikusaraz ditzala adineko emakumeen aurka erabiltzen diren indarkeria matxisten formak eta sentsibiliza dezala gizartearen haien inguruan, oraindik, hein handi batean, ezkutuan jarraitzen duen fenomeno hau desnaturalizatzeko eta haren inguruan kontzientziatzeko. Horretarako, besteak beste, prestakuntzarako eta eztabaidarako espazioak sortuko dira, eta Jabetuz proiektua erabiliko da.
3. Hobetu ditzala indarkeria matxisten antzemate goiztiarra eta haien biktimak diren adineko emakumeak artatzeko prozesuak, batik bat esparru soziosanitariotik; berriki ditzala etxeko tratatu txarren eta indarkeria sexualaren biktimak diren emakumeak artatzeko III. erakundearteko akordioaren baitan egingo diren arreta-protokoloak, behar diren berriak neurriak txertatzeko eta adineko emakumeen errealitate berezira egokitutako erantzunak emateko, eta indartu ditzala indarkeria matxisten biktimak artatzeko eta babesteko laguntza-programak. Esku-hartze prozesuetan, kontuan izan behar da intzidentzia handiagoa izan dezaketela sinismen sistemak, komunikazio-zailtasunek –kasu batzuetan–, osasunagatiko edo prekaritate ekonomikoagatikiko mendekotasun handiagoak, sozializazio patriarkalaren prozesuaren eragin zurrunenek, isolamendu

3. Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D.ª Eukene Arana Varas, parlamentaria del grupo Elkarrekin Podemos, relativa a violencias machistas y mujeres mayores. [11\11\03\00\00104]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EH Bildu, EP, SV-ES y PV-ETP.

39/2018

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a:

1. Dar a conocer y reconocer la contribución histórica y actual de las mujeres mayores al desarrollo de la sociedad vasca y a la conquista de derechos a través de jornadas, talleres y al menos dos campañas. Las campañas se pondrán en marcha en 2019 y 2020.
2. Visibilizar y sensibilizar a la sociedad sobre la existencia de las diferentes formas de violencias machistas que se ejercen hacia las mujeres mayores, con el objetivo de desnaturalizar y concienciar sobre un fenómeno que todavía permanece en gran medida oculto, a través, entre otros, de la creación de espacios de formación y debate, así como a través del proyecto Jabetuz.
3. Mejorar la detección precoz y procesos de atención a mujeres mayores víctimas de violencias machistas, en particular, desde el ámbito socio-sanitario, revisando los protocolos de atención que elaborarán en el marco del III acuerdo interinstitucional para la atención de mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y violencia sexual, para incluir las medidas específicas necesarias y brindar respuestas adaptadas a la realidad particular de las mujeres mayores, y reforzar los programas de apoyo para la atención y la protección a víctimas de violencias machistas. Hay que tener en cuenta en los procesos de intervención que puede tener mayor incidencia el sistema de creencias, las dificultades de comunicación en algunos casos, mayor dependencia por motivos de salud o precariedad económica, efectos más rígidos del proceso de socialización patriarcal, mayor aislamiento...





handiagoak... Horri buruzko informazio xehea jasotzeko helburuarekin, eguneratu egingo da *Adineko emakumeen autonomia Euskadin eta ahalduntze-prozesuei egin dieten ekarpena* 2012ko azterlana, adineko emakumeen aurka erabiltzen diren indarkeria matxistak jorratuko dituen kapitulu bat gehituz. Eguneraketa 2019ko azaroan aurkeztuko da.

4. Antola ditzala indarkeria matxistei eta adineko emakumeei buruzko berriazko hausnarketa-, truke- eta prestakuntza-jardunaldiak, helburu nagusizat dutenak indarkeria matxistak prebenitzeko eta haien biktima diren emakumeak artatzeko eta babesteko sistemetako profesionalei tresna espezializatuak ematea, emakume haien interesei eta berriazko beharrei egokitutako erantzunak eman daitezten. Jardunaldiak 2019an eta 2020an egingo dira.
5. Txerta ditzala, indarkeria matxistei buruzko lege-proiektuan, emakumeek jasaten dituzten mota guztietako indarkeria matxistei aurre egiteko eta adineko emakumeen aurka erabiltzen diren indarkeria matxisten forma bereziei aurre egiteko behar diren neurri guztiak.
6. Osatu ditzala emakumeen aurkako indarkeriari buruz dauden azterlan eta txostenak, adineko emakumeek pairatzen dituzten indarkeria matxisten ezagutza sakonduz".

Con el fin de recabar información pormenorizada a este respecto, se actualizará el estudio de 2012 *La autonomía de las mujeres 'mayores' en el País Vasco y su contribución a los procesos de empoderamiento*, añadiendo en esta ocasión un capítulo que aborde las formas de violencias machistas que se ejercen hacia mujeres mayores. La actualización se presentará en noviembre de 2019.

4. Organizar jornadas de reflexión, intercambio y formación específicas sobre violencias machistas y mujeres mayores, orientadas fundamentalmente a brindar herramientas especializadas a las y los profesionales de los sistemas de prevención, atención y protección a mujeres víctimas de violencias machistas, de manera que se puedan brindar respuestas ajustadas a sus intereses y necesidades específicas. Las jornadas se realizarán en 2019 y 2020.
5. Incorporar en el proyecto de ley sobre violencias machistas, todas las medidas que sean necesarias para abordar todas las formas de violencias machistas que sufren las mujeres y también las formas particulares de violencias machistas que se ejercen hacia las mujeres mayores.
6. Complementar los estudios e informes existentes en relación a la violencia contra las mujeres profundizando en el conocimiento de las violencias machistas que sufren las mujeres de más edad".





4. (deialdiko 5. puntua) Mozioa, Javier Ruiz de Arbulo Cerio Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak aurkeztua, ekarpenen lege-proiektuari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\03\00\00107]

Jatorrizko testua onetsi da.

40/2018

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, indarrean dagoen legeriaren babesean eta Jaurlaritzak berak hartutako konpromisoak betez, aurkeztu dezala legegintza-egutegian aurreikusita dagoen ekarpenen lege-proiektua, 2018. urtea amaitu baino lehen".

4. (punto 5 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Javier Ruiz de Arbulo Cerio, parlamentario del grupo Popular Vasco, relativa al proyecto de ley de aportaciones. [11\11\03\00\00107]

Aprobado el texto original.

40/2018

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, al amparo de la vigente legislación y en cumplimiento de los compromisos adquiridos por el propio Gobierno, presente el proyecto de ley de aportaciones ya previsto en el calendario legislativo, antes de la finalización de este año 2018".





5. (deialdiko 6. puntua) Honako legez besteko proposamen hauek batera eztabaidatu eta behin betiko ebazpena hartzea:

Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, Cuelgamuroseko haranaren etorkizunari buruz. [11\11\02\01\00430]

EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, Erorien Haranean bidegabeki ehortzita dauden euskal jatorriko pertsonak Euskal Herriratzeko. [11\11\02\01\00431]

EA-NV, EP eta SV-ES taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

114/2018

"1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Gogoraren bidez egin dezala premiaz ikerketa xehe bat argitzeko zenbat euskaldun ehortzi zituzten bidegabeki 'Erorien Harana' deritzon eremuan, eta horiek identifikatu dituzala, zehaztuz noiz eta nola eraman zituzten, eta, bereziki, familiaren baimenik izan ote zuten. Horretarako, behar diren hitzarmenak eta kontratuak egingo ditu erakunde espezializatuekin. Horrez gain, familiei harrera egingo die, eta eman dezaketen lekukotasuna eta informazioa hartu; DNA probak eta egoki derizkion horrelako beste erkatze-sistemak erraztuko ditu, pertsona horiek identifikatuak izan daitezten.

Ikerketa hori amaitzean, eta hartatik ateratako ondorioak ikusi ondoren, behar diren izapide administratiboak egingo dira hobietatik atera eta Euskadira lekualda ditzaten Cuelgamuroseko haranean –gaur egun 'Erorien Harana' deritzon eremuan– dauden euskal jatorria duten errepublikarren, miliziarren, gudarien eta herritarren gorpuzkiak, familiek hala nahi badute, familiarik baldin bada, eta betiere horretarako baldintza teknikoak baldin badaude. Gorpuzkiak –famihiakoen borondatea errespetatuz eta biktimen elkarrekin eta memorialistak, erakunde

5. (punto 6 de la convocatoria) Debate conjunto y resolución definitiva de las proposiciones no de ley siguientes:

Proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, relativa al futuro del valle de Cuelgamuros. [11\11\02\01\00430]

Proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, relativa al traslado a Euskal Herria de las personas de origen vasco enterradas injustamente en el Valle de los Caídos. [11\11\02\01\00431]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EP y SV-ES.

114/2018

"1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a la realización a través de Gogora de una investigación exhaustiva que clarifique el número de vascos y vascas que fueron inhumadas injustamente en la ubicación que se conoce como 'Valle de los Caídos', procediendo a su identificación, determinando cuándo y cómo fueron llevadas, y, especialmente, si contaron con la autorización familiar necesaria. Para ello, establecerá los convenios o contratos necesarios al efecto con organismos especializados. Asimismo, acogerá a las familias, recogiendo el testimonio y la información que puedan aportar, facilitando la realización de pruebas de ADN u otros sistemas oportunos de cotejo, para la identificación de estas personas.

Concluida dicha investigación, y a la vista de las conclusiones de la misma, se lleven a cabo las gestiones administrativas para exhumar y trasladar a Euskadi los restos mortales de republicanos, milicianos, gudaris y ciudadanos de origen vasco que se encuentran en el valle de Cuelgamuros, actualmente denominado 'Valle de los Caídos', conforme con la voluntad de los familiares, en caso de existir, siempre que las condiciones técnicas lo hagan posible. Los restos mortales se situarán –respetando la voluntad de los familiares, contando con asociaciones de víctimas y memorialistas,





historikoak eta tokiko erakundeak aintzat hartuz– kokagune egokietan ipiniko dira –hala behar bada, eraiki egingo dira–, biktima horiek ezagupena eta erreparazioa izan dezaten.

2. Eusko Legebiltzarrak berresten du bere babesa eta premiazkoa ikusten du Nazio Batuek, Europako erakundeek eta nazioarteko beste aditu batzuek jaurkitako txostenetan datozen neurriak aplikatzea; batez ere, Europar Batasunean 2015ean oinarritzko eskubideen egoeraz egindako txostenekoak. Txosten horietan neurriak datoz biktimak nola aitortu eta erreparatu, orobat dator ikerketa judizialekin kolaboratzeko premia, arlo horretan erantzukizunak argitzeko helburuz eta Europar Batasunean erregimen totalitarioek –hala nola erregimen frankistak– gizateriaren aurka egindako krimenen biktimei egia, justizia eta erreparazioa emateko helburuz.
3. Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen dio premiaz erantzun diezaiela biktimen familiak haien gorpuzkiak hobietatik ateratzeko egindako erreklamazio eta eskakizun guztiei, hartara berek har ditzaten horien ardurua eta duintasunez hilobira ditzaten. Alde horretatik, Espainiako Gobernuari eskatzen dio premiaz identifikatu ditzala norbanako bakoitzaren gorpuzkiak, kontuan izanik Cuelgamuroseko haranean dauden hogeita hamar mila lagun baina gehiagoren familiak, betiere baldintza teknikorik baldin badago, eta bermatuz hobietatik ateratzeko prozedura babes judizialaren pean egiten dela, hartara biktimei dagozkien eskubideak babestuta egon daitezten.
4. Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen dio, erabaki irmoz eta urgentziaz, 'Erorien Harana' deritzonari esanahi berri bat emateko, eta baliorik gabe uzteko diktadura frankistako 1957ko abuztuaren 23ko Lege Dekretuaren bidez ezarritako hitzarmena, leku hura ez dadin gehiago izan diktadorearen omenezkoa eta frankismoaren eta nazional-katolizismoaren oroimenezkoa. Alde horretatik, eskatzen du premiaz desakraliza dezala erabat monumentu gunea, ezaugarri frankista eta erlijiosoak dituen adierazpen eta konnotazio oro ezaba ditzala eta memoria demokratiko batekin bateragarriak ez diren sinboloak ken ditzala, hala nola ezpata-gurutzearen monumentua.

organizaciones históricas e instituciones locales– en ubicaciones adecuadas ya existentes o que se tengan que construir, para que estas víctimas tengan su reconocimiento y reparación.

2. El Parlamento Vasco ratifica el apoyo y la necesidad de aplicación de las medidas establecidas en los distintos informes emitidos por Naciones Unidas, instituciones europeas y otros expertos internacionales, particularmente el informe sobre la situación de los derechos fundamentales en la Unión Europea en 2015. Informes que incluyen medidas para reconocer y reparar a las víctimas, así como la necesidad de colaborar con las investigaciones judiciales destinadas a esclarecer responsabilidades en este ámbito y a procurar verdad, justicia y reparación a las víctimas de los crímenes de lesa humanidad cometidos en la Unión Europea por regímenes totalitarios, como fue el franquista.
3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno de España a atender con premura todas las reclamaciones y peticiones de exhumación de los restos de las víctimas que realicen sus respectivos familiares en aras a hacerse cargo de los mismos y darles digna sepultura. En este sentido insta al Gobierno de España a proceder a la identificación individual de los restos mortales teniendo en cuenta a los familiares de las más de treinta mil personas que se encuentran en el valle de Cuelgamuros, siempre que las condiciones técnicas lo hagan posible, garantizando la tutela judicial de los procedimientos de exhumación en aras a preservar los derechos que corresponden a las víctimas.
4. El Parlamento Vasco insta al Gobierno de España a afrontar, de forma decidida y urgente, la resignificación de la función del denominado 'Valle de los Caídos', dejando sin efecto el convenio establecido a través del Decreto Ley de 23 de agosto de 1957 de la dictadura franquista, para que dicho lugar deje de ser un lugar de tributo al dictador, de memoria franquista y nacional-católica. En este sentido se insta a desacralizar completamente el espacio monumental, eliminar toda expresión y connotación franquista y religiosa, y a dismantelar los elementos simbólicos incompatibles con la memoria democrática como el monumento cruz-espada. Asimismo, le insta a impedir y





Horrez gain, eskatzen du premiaz eragotz dezala eta legezatasuna ken diezaiola diktadura frankista edo diktadorearen figura minimizatzen, justifikatzen edo goستن duen edozein ekintzari".

deslegitimar todo acto de enaltecimiento que minimice, justifique o exalte la dictadura franquista o la figura del dictador".





6. (berria) Adierazpen instituzionala, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna dela-eta. [11\11\05\00\00057]

Onetsia.

"Azaroaren 25a dela-eta, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko egunean, indarkeria matxistatik libre egongo den gizartearen eraikitzearekin dugun konpromisoa berretsi nahi dugu. Era berean, nazioarteko marko juridikoarekin bat, berriz adierazten dugu badagoela loturirik genero-arrazoiengatik bazterkeria eta desberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean, indarkeria hori giza eskubideen urraketa bat bezala ulerturik.

Testuinguru honetan, arreta jarri nahi dugu indarkeria matxistaren biktimek duten erreparazio-eskubidean. Erreparazio horrek egitarako eskubidea dakar, bidezkoa baita emakume horiei hitza ematea, bizi izandako indarkeriaren kontaketa eta salaketa entzutea. Horren guztiaren xedea da hautsitako eskubideak itzultzea eta pairatutako indarkeriaren eraginak sozialki aitortzea. Indarkeria matxista hauek bizitzen dituzten emakumeek kontatutakoak susmagarri suertatzen direnean edo zalantzan jartzen direnean, haien hitza gutxietsia izaten da, zikindua, are isilarazia. Halakoetan biktimizazio bikoitza gertatzen da: emakume biktimek jasandako minari lotsa eta erruduntasuna eranstean zaio; erasotzaileak, ordea, justifikatu egiten dira.

Eusko Legebiltzarrean geure egin behar dugu biktimen egitarako eskubidea bermatuko duen gizarte bat eraikitzeke arduraren sozial eta politikoa.

Ezinbestekoa da ahotsa ematea emakumeei, autoritatea beraien testigantzari eta egiazkotasuna bizi izandako indarkeriaren kontaketa. Horrek esan nahi du indarkeriaz beharturiko emakumeen hitza aintzatetsi beharra dagoela, kaltea erreparatu, askatasuna berrezarri, hartara bizirik atera den pertsonatzat har daitezela eta beren komunitateetan eskubide osoko duintasun- eta herritartasun-zentzua berreskura dezaten.

Horretarako, Eusko Legebiltzarrak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- Zerbitzuak hobetzen laguntzea, babeserako zerbitzu-sare bat garatze aldera, emakumeei arreta osoa bermatzeko bere onera etor

6. (nuevo) Declaración institucional con motivo del Día internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres. [11\11\05\00\00057]

Aprobada.

"Con motivo del 25 de noviembre, Día internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres, queremos reiterar nuestro compromiso con la construcción de una sociedad libre de violencia machista. En línea con el marco jurídico internacional, reafirmamos el vínculo existente entre la discriminación y desigualdad por motivos de género y la violencia contra las mujeres, entendiéndola como una violación de los derechos humanos.

En este contexto, queremos hacer hincapié en el derecho a la reparación de las víctimas de la violencia machista. Una reparación que implica el derecho a la verdad, a que el relato de la violencia vivida, la denuncia y la palabra de las mujeres, sean legítimamente escuchadas. Todo ello con el fin de conseguir la restitución de los derechos conculcados y el reconocimiento social de los impactos de la violencia sufrida. Cuando se sospecha o se ponen en cuestión los relatos de las mujeres que viven estas violencias machistas, su palabra es infravalorada, desacreditada, e incluso silenciada. Se produce entonces una doble victimización, agravando el daño sufrido por las mujeres víctimas con sentimientos de vergüenza y culpabilidad, a la vez que se justifica a los agresores.

Desde el Parlamento Vasco debemos asumir nuestra responsabilidad social y política en la construcción de una sociedad que garantice el derecho a la verdad de las víctimas.

Se hace necesario dar voz a las mujeres, autoridad a su testimonio y legitimidad a su relato de la violencia vivida. Esto significa contar con la palabra de las mujeres violentadas para reparar el daño, restaurar su libertad para reconocerlas como supervivientes y para que puedan recuperar su sentido de dignidad y ciudadanía de pleno derecho en sus comunidades.

Para ello el Parlamento Vasco se compromete a:

- Contribuir en la mejora de los servicios, en aras de desarrollar una red de servicios de apoyo para garantizar la atención integral a





daitezen, ahalduntze feminista eta banakako erreparazioa ikuspegi nagusi harturik.

- Bizirik atera diren emakumeak entzutea, prebentzio eta segurtasun neurriak diseinatzeko, emakumei bizirauten, babesten eta ahalduntzen balio dieten aurre-emate estrategiak balioan jarritz.
 - Emakumeak laguntzea, babes-zerbitzuen bitartez, bizi izandako indarkeriari buruzko beraien kontaketa egin dezaten, indarkeria hori gizarte-sistema patriarkalean erakitako menderapen- eta kontrol-mekanismo bezala ulertuta.
 - Ekimen kolektiboak laguntza ematea (laguntza-taldeak eta plataformak), hartara bizirik irtendako emakumeek indarkeria hori buruzko kontaketa kolektiboa landu dezaten eta hautsitako eskubideak zein erreparazioa aldarrika ditzaten.
 - Biktimei salaketa- eta erreklamazio-prozesuetan laguntza ematea, emakumeek adierazitako testigantza eta beharrak egiaztatuz.
 - Aldiro indarkeria matxistaren biktimen aldeko aitorten publiko eta erreparazioko ekitaldiak egitea, indibidualak zein kolektiboak: emakumeen erresistentzia-memoria berreskuratzeko ikerketak; omenaldi-ekitaldiak; emakumeen memoria eta kontaketa jakinarazteko jardunaldiak; gazteekiko sentsibilizazio-tailerrak, e.a.
 - Elkarlanean jardutea mugimendu feministako ordezkariekin, adituekin eta indarkeria matxistatik bizirik irtendako emakume biktimen kolektibo eta elkarteekin".
- las mujeres en su recuperación, desde el enfoque feminista de empoderamiento y reparación individual.
 - Escuchar a las mujeres supervivientes para diseñar medidas de prevención y seguridad, poniendo en valor las estrategias de afrontamiento que permiten a las mujeres sobrevivir, protegerse y empoderarse.
 - Acompañar a las mujeres, desde los servicios de apoyo, a elaborar su propio relato de la violencia vivida, entendiéndola como mecanismo de dominación y de control construido en un sistema social patriarcal.
 - Apoyar iniciativas colectivas (grupos de apoyo y plataformas) para que las supervivientes elaboren el relato colectivo de la violencia y reivindiquen los derechos vulnerados y la reparación debida.
 - Apoyar los procesos de denuncia y reclamación de las víctimas, legitimando el testimonio y las necesidades expresadas por las mujeres.
 - Realizar actos periódicos de reconocimiento público y reparación de las víctimas de violencia machista, tanto individuales como colectivos: investigaciones para recuperar la memoria de resistencia de las mujeres, actos de homenaje, jornadas para dar a conocer la memoria y los relatos de las mujeres, talleres de sensibilización con jóvenes, etc.
 - Trabajar en colaboración con las representantes del movimiento feminista, expertas y colectivos y asociaciones de mujeres víctimas supervivientes de violencia machista".





7. (berria) Adierazpen instituzionala, haurren eskubideei buruz. [11\11\05\00\00058]

Onetsia.

"Pertsona migratzaile eta errefuxiatuen defentsarako Eusko Legebiltzarreko Taldeartekoak, Eusko Jaurlaritzak eta Save The Childrenek Belgradora egindako bidaian ikusi dugu milaka haur migratzen dutela hamaika arrazoi tarteko mugen barruan eta horietatik kanpora, familiak lagunduta edo, askotan, babestuko dituen inor gabe. Haur horiek bereziki ahul dira esplotazioaren aurrean, abusuaren aurrean edo indarkeriaren forma anitzetako edozeinen aurrean.

Migratzen duten haurrak beste leku batzuetara doaz beren herrietan aurkitu ez dituzten aukeren bila. Beste batzuetan, haurrak leku batetik bestera joatera behartzen dituzte, bai pobrezia, indarkeria edo hondamendi naturalengatik, bai trafikoaren edo esplotazioaren biktima bihurtzen direlako.

2018. urte hau bereziki tragikoa izaten ari da Europan segurtasuna bilatzen duten persona migratzaile eta errefuxiatuentzat. Nazio Batuen arabera, 2.000 pertsonatik gora hil dira. Gainera, 2014tik hona, 640 haur baino gehiago hil dira zeharkaldi berean, eta askoz gehiago ere izan litezke, gertatzen diren desagertzeen asko eta asko ez baitaude ziurtatuta ezta dokumentatuta ere.

Haur migratzaileak eskubidedun subjektuak dira eta haur izate hori migratzaile izatearen gaineratik dago. Ikuspegi horretatik abiatuta, Eusko Legebiltzarra bat dator Eusko Jaurlaritzarekin eta ondorengo hauetan babesa emateko konpromisoa hartzen du:

- Giza eskubideen eta elkartzaren ikuspegitik, alorren eskumena duten Estatuko erakundeekiko elkarlanari eustea, birkokatze eta birfinkatzeko prozesuetan dauden haurrak zein beren ardurapean adingabeak dituzten familiak jasotzeko prest dagoen lurralde gisa agertze aldera.
- Dagoeneko abiatutako ekimen eta programak garatzen jarraitzea, eta Euskadira iristen diren persona migratzaile eta errefuxiatuak, bereziki haurrak, artatzeko

7. (nuevo) Declaración institucional sobre los derechos de la infancia. [11\11\05\00\00058]

Aprobada.

"En el viaje a Belgrado conjunto del Intergrupo en defensa de las personas migrantes y refugiadas del Parlamento Vasco, el Gobierno Vasco y Save The Children, hemos constatado que miles de niñas y niños migran por una infinidad de razones dentro y fuera de sus fronteras, acompañados por su familia o, en muchas ocasiones, solos sin nadie que les proteja, siendo especialmente vulnerables frente a la explotación, el abuso o cualquiera de las distintas formas de violencia.

Los niños y las niñas que migran, viajan a otros lugares en busca de las oportunidades que no encuentran en su propio país. Otras veces, los niños son forzados a desplazarse bien por causas como la pobreza, la violencia o los desastres naturales o porque se convierten en víctimas de tráfico o explotación.

Este año 2018 sigue siendo especialmente trágico para las personas migrantes y refugiadas que buscan seguridad en Europa, con más de 2.000 personas muertas según cifras de las Naciones Unidas. Además, más de 640 niños y niñas han perdido la vida desde el año 2014 en la misma travesía, aunque el número podría ser mucho mayor ya que muchas de las desapariciones que se producen no están certificadas ni documentadas.

Desde la perspectiva de que los niños y las niñas migrantes son sujetos de derecho y debe primar su condición de niño por encima de su condición de migrante, el Parlamento Vasco comparte con el Gobierno Vasco y se compromete a apoyar:

- La continuación de la colaboración, desde una perspectiva de derechos humanos y solidaridad, con las instituciones estatales que tienen competencia en la materia, para mostrarse como territorio receptivo de niños, niñas y familias con menores a cargo dentro de los procesos de reubicación y reasentamiento.
- La continuación del desarrollo de programas e iniciativas ya iniciados y otros nuevos que puedan ser necesarios para atender la llegada de personas migrantes y refugiadas





beharrezkoak izan daitezkeen ekimen eta programa berriak ere garatzea, foru- eta udal-administrazioekin elkarlanean, eta orobat, gizarte-erakunde eta gizarte zibilarekin.

· Igarobidean daudela beren funtsezko giza eskubideen urraketa-testuinguruetan dauden haurren duintasuna eta babesa bermatzen duten proiektu eta ekintzei laguntza ematen jarraitzea".

a Euskadi, particularmente niños y niñas, en colaboración con las administraciones forales, locales, entidades sociales y sociedad civil.

· La continuación del apoyo a proyectos y acciones que garanticen la dignidad y la protección de los niños, niñas migrantes que se encuentran en tránsito en contextos de vulneración de sus Derechos Humanos fundamentales".

